

TTAKUN (H)ERRENKA

Sortzaile handiak

Talebista itzaltzen dugunean ez dugu askorik galtzen. Nik, egia, ez dut horretan zer galdurik bater; irabazia bai handia. Niri, telebista aipatzen didatenean, zabor ontzietara joaten zait pentsamendua. *Sautrela* ez zuten joan den udazkenean emititu, diru faltagatik. Urtarrilaren 21ean hasi zuen azken denboraldia literatur saioak, Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegi* zenari eskainitako atal batekin. ETBk literaturari eskaintzen dion saio bakarra apirillean amaituko da. Beñatek penaz hartu du albiste. Nik ere bai kezka handiz. Aginte guneek errespetu handia zor diote, itxuraz, “kultura” esaten dioten horri. Eta gero, hasian hasi, ez zaie kakarik inporta. Are gehiago esango dut, kakaren kudeaketa politikako gudu-zelai bihurtzea inporta zaie gehiago, kultur prekaritateari aurre egitea baino. Diru faltaren aitzakia horren atzean beste motibo batzuk ere ikusten ditut nik. Dirua aitzakia da, ez arrazoia. Krisia, diru falta, argudio ederra bihurtu da aginte taldeek kulturaren alde duten konpromiso falta ezkutatzeko. Begira: krisiaren kontu hau dena lehertu baino lehen, 90eko hamarkadan, hogei urterekin, kultur zerbitzurako bokazioz Urretxun eta Zumarragan izan ziren udal gobernu ezberdinetara kultur proposamen berri batekin *in situ* azaltzen nintzen bakoitzean, lanpostua kenduko ote nien beldurrez hartzen ninduten beti; krisiaren kontu hau dena lehertu baino lehen, mende berriaren lehen bosturtekoan, hogeita hamar urterekin, jadanik Zarautzen bizi nintzela, kultur zerbitzurako bokazioz udal gobernura joan nintzen nire burua *in situ* eskaintzera, egingo ziren eta egin zitezkeen kultur jardueretan laguntzeko, esan zidaten deituko zidatela, deiaren zain nago oraindik. Ildo

CONCETTA PROBANZA



José Luis Padrón



Sarasola



Apaolaza

horretatik, orain gogoratze-ko modukoa iruditzen zait Andoni Egañak *Berria* egunkariko Plazatik atalean *Kalitateaz* (2012-01-14) izenburuarekin idatzitako artikulua. Zarautz, bizitza kalitateari dagokionez, hamar mila bizilagunetik gorako seiehun herritatik Estatuko hamahirugarren herrizat jo dute

Economía aplicada aldizkarian. Bizitza kalitatea neurtzeko kontsumoa, gizarte-zerbitzuak, etxebizitza, ingurugiroa, lan-merkatua, osasuna, kirola eta aisialdia, segurtasuna, ikasketa maila eta kultura hartu omen dituzte aintzat. Eta “Kultura???” ondo harrituta galdetzen die Egañak txosten hori egin duten ikerlariei eta txosten hori ordaindu duten udaleko teknikariei. Zarautz herriak ematen digun adibidea oso emankorra izan daiteke. Nik, gaur, denboraren guardia zakurren azpian zeharo hartuta, modu ez-ofizialean gogaituta, herri zerbitzurako optimismo tragiko baten arrimuan, iraganeko ametsak zeharo simaur bihurturik, oro har kultur egitarauen inguruan zer egiten den ezin ulertu ditzakedan hondakin zistrinez beterik, gauza ikaragarri normaltzat ulertzen dut teknikarien ezaxola jasotzea, baina gauza ikaragarri tristea iruditzen zait Zarautzen bizi den idazle, poeta, musikari, aktore, bertsolari, eskultore, pintore, kulturgile, eta abar, eder piloaren ahalera

handia, goi mailako giza talde horren baliabide kreaizaileak astez aste herrirako alferrik galtzen ikustea. Dena den, itxaroten jakin behar dugu, etorkizunik gabeko gure kultur proposamen-hondakin kudeaketari konponbidea urtebete barru emango zaio, atez ateko zabor bilketa Euskal Herri osoan ezartzen denean. Baina kontainerra jarri beharko digute. Zabor sortzaile handien rankingean baikaude. ■



«
 Diru faltaren aitzakia horren atzean
 beste motibo batzuk ere ikusten ditut
 nik. Dirua aitzakia da, ez arrazoia.
 Krisia, diru falta, argudio ederra bihurtu
 da aginte taldeek kulturaren alde duten
 konpromiso falta ezkutatzeko
 »